

# IDAZLEAK IKASTETXEETARA

Mariasun LANDA ETXEBESTE



Irakurlea eta idazlea lagun izan arren askotan elkar azagu-tzen ez duten bi mundu dira, eta irakurle hori haur edo gaztetxo denean distantzia hori are eta handiagoa izan ohi dela esan daiteke. Idazleok, eskola batera edo bestera joateko deituak izaten dugu eta normalki, oso esperientzia aberatsa eta interesgarria gertatzen da, bai idazlearentzat bai irakule gaztetxoarentzat.

Hasteko, haur irakurle gehienagoari ez ziao sekula burutik pasa irakurri duten ipuinak edo liburuak egile bat duenik, istorio hori norbaitek asmatu duenik ete, horrelakorik pentsatu badute ere, idazle hori hilik dagoela uste dute. Biziki harritzen dira, beraz, emakumezko edo gizonetzko arrunt baten aurrean aurkitzen direnean...

Hasieran oso tente eta erne egoten dira idazle delako pertsona horren inguruan, eta hark agurtzeko hitz goxo batzuk esan arte ez dira erlajutzen, ez dira beren aulkietatik gehiegi mogitzera ausartzen... Une horretan, kupidarik gabe aztertzen dute eskolara jo-



an zaien pertsonai ezezagun horren aurpegia, bere jatzera, bere jarrera, ea "idazletasun" famatu hor xehetasun estrefalario batean antzematen duten, ea zerbait berezia eta liluragarria duen...Eta besterik ezean, idazle horri bere obrari buruzko zenbait galdera egitera prestatzen dira.

## GALDE DEBALDE

Ia beti, kuaderno bat dute lagun. Eta hantxe barruan, galdekizun batzuk idatzita, asko pentsatutako galderak bait dira: "noiz hasi zinen ipuinak asmatzen?... Askok gustatzen al zaizu idaztea? Zein da idatzitako ipuinen artean gehien gustatzen zaizuna? Nola idazten da ipuin bat?..."

Galdera ebitaezinak dira, ia aukera guztietan erre-

pikatzen direnak, bankete baten aurrean hartzen diren aperitiboen antzera. Zeren, geroxeago, ditzosozko koaderno horiek ahaztuta, beren galderak gero eta zehatzago, bihurriago, bilakatzen bait dira: Zergatik izar hori berdea zen eta ez gorria? Non ikusi duzu nigar egiten duen perretxikorik? Eta zergatik Txan fantasmak ez zuen Karmentxu arraroetxetik askatu?...

Badaude haur irakurle horien artean, idazlearen kontu korronteaz arduratzen direnak, "asko irabazten al duzu ipuinak asmatzen?", baita bihotzaren gorabeheretaz kezkatzen direnak ere: "nobiorik ba al duzu?"...Hau da, gutxien espero denean, galdera harri-garriren bat edo beste zuzenduko diote idazle gizarajoari, haurrak pentsatzen dugun baino zorrotzagoak bait dira.

## **EUSKAL IDAZLEAK DONOSTIAKO IKASTETXEETAN**

Ikasle eta idazleen arteko topaketa hauek ugaritu eta instituzionalizatu beharko lirakeela eta, aurrean, plangintza berri bat jarri da martxan Donostia aldean, Euskal Idazleen Elkartearen eskutik eta Udaletxeko Euskararen Patronatoaren dirulaguntzarekin.

Euskal Idazleen Elkarteak inkesta bat egin zuen bazkideen artean, ikasleek alde aurretik irakurritako beren idazlanak komentatzeko prest zeintzuk zeuden jakiteko asmoz. Aldi berean, eskutitz bat bidali zuen Donostiako O.H.O., B.B.B., eta L. H ikastetxe gutietara zenbat ziren esperientzia horri ekiteko prest zeudenak jakiteko. Eskutiz horretan, hamalau idazle osaturiko zerrenda eskeini zitzairen, gustokoenak aukera zitzaten. Era berean, idazle hauen zenbait idazlan aipatzen zitzairen, ikasleek, autorearekin egon aurretik, liburu horiek irakurriak izan zitzairen.

Guztira, hamabost izan ziren baietza eman zuten Donostiako ikastetxeak, ia gehienak D eredukoak.

Beraz, Peio Añorga, Pako Aristi, Juan Martin Elexpuru, Enkarni Genua, Juan Mari Irigoien, Joxe Mari Iturralde, Mariasun Landa, Manu Lopez, Anjel Lertxundi, Laura Mintegi,

Inazio Mujika Iraola, Joseantonio Ormazabal, Juan Luis Zabala eta Jesus Mari Mendizabal izan dira, azken hilabete hauetan ikasleen galdera eta zalantzei erantzuteko asmoarekin hamabost eskola edo instituto bisitatu dituzten idaleak.

Esperientzia honen ebaluapen orokorra egin gabe dago oraindik, baina Euskal Idazleen Elkartearen ahalegintzen ari da Euskal Herri osoan zabaltzeko, ikastetxeetan literaturzaletasuna bultzatzeko ekintza osos aproposa izan daitekeelako.

